



Gasteiz, 2026ko maiatzaren 15

ESKOLA PUBLIKOAK IXTEA: SARE PUBLIKOAREN KONTRAKO BESTE NEURRI BAT

Hezkuntza Sailak 9 eskola publiko ixtea erabaki du: Bilbon, Basaurin, Getxon, Leioan eta hemen Gasteizen, 18 ikastetxe publiko hartu eta, bateratzearen edo integrazioaren ondorioz, 9 bakarrik geldituko dira. Berriro ere, sare publikoaren kontrako neurri bat.

Neurri hau ez da adostua izan. Egingo diren ikastetxeen fusioak inposatuak dira: Hezkuntza sailak erabakia hartuta zeukan eta ikastetxeei jakinarazi die aukerarik eman gabe. Ez da entzun komunitatearen iritzia, ez da ireki prozesu parte hartzaileak, goitik behera etorri dira neurriak eta, ez dira erraztasunak eman ez eta laguntza eta aparteko diru-partida nahikorik ere, bi ikastetxeetatik bat egiteko.

Jaiotze tasaren beherakada aitzakia hartuta, irakaskuntza kalitatezkoagoa bultzatu beharrean, sare publikoak plazak eta lanpostuak galduko ditu.

Eta eskola publikoak ixten dituen bitartean, irakaskuntza pribatuari 920 milioi euro eman zaizkie ikasturte honetan, historia osoan izan duten finantzazio publikorik handiena. Zertarako eta sare publikarekin lehia egiten jarraitzeko. Ondorioa garbia da: sare publikoan dirua aurreztu, sare kontzertatuari emateko.

Eta zergatik ez fusionatu ikastetxe kontzertatuak? Ez dagoelako Sailaren esku, ez dira bereak, pribatuak dira, fusioak ezin dira gauzatu ikastetxe pribatu horiek aurretik publikatzen ez badira. Baina bere esku dago diru publikoa nola banatu, eta lojikoena litzateke eskaintza pribatua mugatzea, eta ez eskola publikoak ixtea, lojikoena litzateke dirua aurreztu kontzertazioa murriztuz eskola publikoa hobetzeko. Ez du zentzurik pribatuaren kontzertazioarekin jarraitzea eskola publikoaren eskaintza nahikoa denean. Nola justifikatu daiteke Gasteizko NClic ikastetxe pribatu eta doktrinatzaileri 2,5 milioi euro ematea beharrezkoa ez den eraikuntza berria (kapera bat barne) egiteko?

Gainera, ikastetxe publikoen fusioek ez dute eraginik izango segregazioan, segregazioa sareen artean gertatzen delako, kontzertatuaren eta publikaren artean, alegia. Fusioekin hezkuntza sareen arteko desoreka ez da ukituko.

Zoritxarrez, Hezkuntza Sailak aurrera eramaten dituen politikak hezkuntza kontzertatuaren mesedean eginak dira. Sailburua pribatuko patronalaren esanetara dago, ez du sare publikoa errespetatzen, are gutxiago lehenesten. Segregazioaren aurkako mahaia horren adibide garbia da. Mahai horretatik alde egin dute hezkuntza publikoko ordezkari gehienek.

Harrigarria da gogoratu behar izatea Hezkuntza Sailari Eskola Publikoa bere eskola dela, zaindu behar duena, ardatz eta eredu bihurtuz. Guk, gure aldetik, denona den eskola aldarrikatu, defendatu eta sustatzen jarraituko dugu.

**ESKOLA PUBLIKOAK EZ ITXI. ESKOLA PUBLIKOARI LEHENTASUNA EMAN!
DIRU PUBLIKOA ESKOLA PUBLIKARENTZAT**

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAZ HARRO. GASTEIZKO PLATAFORMA